

# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

IX. legegintzaldia

Iruña, 2017ko otsailaren 2a

23. ZK.

---

### A U R K I B I D E A

G SAILA:

**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

—Lizarrako Udalaren 2015eko ekitaldiari buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganberak egina (2. or.).

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

## **Lizarrako Udalaren 2015eko ekitaldiari buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganberak egina.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko abenduaren 19an eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak Lizarrako Udalaren 2015eko ekitaldiari buruzko fiskalizazio txostena egin du.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c) artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 205. artikuluan ezarritakoarekin bat, hona hau ERABAKI DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2016ko abenduaren 19an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

## **Lizarrako Udalaren 2015eko ekitaldiari buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganberak egina**

### **AURKIBIDEA**

I. Sarrera (3. or.).

II. 2015eko kontu orokorrari buruzko iritzia (6. or.).

II.1. Auditoriaren finantzarioko iritzia (7. or.).

II.2. Legezketasuna betetzeari buruzko iritzia (7. or.).

III. Udalaren 2015eko kontu orokorraren laburpena (8. or.).

III.1. 2015eko aurrekontu bateratuaren betetzearen egoera-orria (8. or.).

III.2. 2015eko aurrekontu-emaitza bateratua (9. or.).

III.3. Diruzaintza-gerakina 2015eko abenduaren 31n (9. or.).

III.4. 2015eko abenduaren 31ko balantze-egoera (10. or.).

III.5. Galeren eta irabazien kontu bateratua 2015ean (11. or.).

IV. Oharpenak, iritzian eraginik ez dutenak, eta gomendioak (12. or.).

IV.1. Udalaren egoera ekonomiko-finantzarioa 2015eko abenduaren 31n (12. or.).

IV.2. Aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasunaren helburuak betetzea (15. or.).

IV.3. Aurreko txostenetan Kontuen Ganberak emandako aholkuak betetzea (16. or.).

IV.4. Alderdi orokorrak (16. or.).

IV.5. Langileak (17. or.).

IV.6. Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak (19. or.).

IV.7. Transferentzia arruntetatik gastuak (19. or.).

IV.8. Inbertsioak (20. or.).

IV.9. Aurrekontuko diru-sarrerak (21. or.).

IV.10. Itxitako aurrekontuak (diru-sarrerak) (22. or.).

IV.11. 2015eko abenduaren 31ko balantze bateratua eta 2015eko ekitaldiko emaitzen kontu bateratua (23. or.).

IV.12. Gorabeherak (23. or.).

IV.13. Hirigintza (24. or.).

Eranskina. Udalaren 2015eko kontu orokorraren oroitidazkia.

(Oharra: Aipatutako eranskina foru parlamentarien esku dago Agora aplikazioan eta honako web helbidean:

[www.cfnavarra.es/camara.comptos](http://www.cfnavarra.es/camara.comptos)).

## I. SARRERA

Kontuen Ganberak, bera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari eta 2016rako jarduketa-programari jarraituz, Lizarrako Udalaren 2015eko ekitaldiko urteko kontuak fiskalizazioa egin du. Honako hauek osatuta daude kontu horiek: aurrekontuko likidazioaren egoera-orria, balantzea, emaitza ekonomiko eta ondarezkoen kontua eta data horretan amaitutako ekitaldiari dagokion oroitidazki ekonomikoa.


Urteko kontuen finantza-auditoriarekin batera, legezkotasuna betetzeari buruzko fiskalizazioaren plangintza egin eta bete dugu, honako honi buruzko iritzi bat eman ahal izateko: ea Udalak ekitaldian zehar egindako jarduerak eta aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta 2015eko ekitaldiko urteko kontuetan jasotako informazioa bat ote datozen, alderdi esanguratsu guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatzekoak zaizkion arauekin.

Lizarrako Udalari 2015eko ekitaldian aplikatzekoa zaion arau-esparrua, funtsean, honako hauek osatuta dago: Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legea, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legea, bai eta sektorekako araudi indarduna eta aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren arloko araudia ere.

Lizarrako udalerriak 15,39 km<sup>2</sup>-ko azalera du, eta 2015eko urtarrilaren 1ean, 13.702 biztanle dauzka.

Tokiko zerbitzu publikoak emateko, Udalak erakunde autonomo bat sortua du (musika eskola), bai eta merkataritza sozietate bat ere, non bazkide bakarra baita.

Udalaren eta haren menpeko erakundeen osaera honako hau da:



*Administrazioaren Sektore Publikoa*

Udalak berak eta haren erakunde autonomo bakarrak osatua. 2015eko ekitaldia ixtean, erakunde horien funtsezko datu ekonomikoak honako hauek ziren:

Entitatea	Aitortutako betebeharrak	Aitortutako eskubideak	Langileak, 2015-12-31n
Udala	10.713.831	12.585.522	119
“Julián Romano” Musika Patronatua	391.742	369.053	16
Bateratzearen doitzeak	-200.653	-200.653	
<b>Bateratua, guztira</b>	<b>10.904.920</b>	<b>12.753.922</b>	<b>135*</b>

(\*) Zenbateko horrek enplegu sozialeko 15 langile hartzen ditu, beren lan-harremana abenduaren 30ean bukatu zutenak, bai eta lantegi-eskolako 17 langile ere, baja azaroaren 30ean eta abenduaren 15ean izan zutenak.

2015ean, Udalak 172.033 euroko ekarpena egin dio, guztira, bere erakunde autonomoari.

*Enpresen Sektore Publikoa*

Gedemelsak osatzen du. Udala bazkide bakarra deneko pertsona bakarrekosozietatea da. 60.500 euroko kapital soziala dauka eta 2015eko abenduaren 31n 41.080 euroko finantza-inbertsioa dauka. Ez du inongo jarduera ekonomikorik garatu 2006an eratu zenetik. Administrazioari dagozkion diru-sarrera finantzarioak eta gastuak izan ditu.

Udala, gainera, honako hauek kidea da:

- Jurramendiko Mankomunitatea, honako zerbitzu hauek ematen dituena; uraren ziklo integrala eta hiri hondakin solidoen kudeaketa eta tratamendua.
- Lizarraldea Turismo Partzuergoa, eskualdeko turismoa sustatzekoa.
- TEDER Elkarte, landa garapena sustatzekoa.
- L'Urederra Fundazioa

Mankomunitatean dituen zerbitzu hauek guztiek 122.192 euroko gastuak eragin dizkiote Udalari 2015ean.

Hurrengo taulan laburbilduta ageri dira ematen dituen zerbitzu publiko nagusiak eta haiek emateko modua:

Udal zerbitzuak	Udala	Erakunde autonomoak	Mankomunitatea	Zerbitzu kontratuak
Zerbitzu administratibo orokorrak	X			
Musika Eskola		X		
Hirigintza	X			
Ur-hornidura			X	
Hiri hondakinak			X	
Kale garbiketa				X
Udal hilerria				X
Kultur etxea	X			
Liburutegia	X			
Gustavo de Maeztu museoa	X			
Haur Eskola	X			
Kontsumitzaileari informazioa emateko bulegoa				X
Gizarte zerbitzuak	X			
Etxez etxeko laguntza	X			
Kultur etxea	X			
Gazteen etxea	X			
"Tierra Estella" kirol-pabiloia				X
"Remontiva" frontoia				X
Berdintasuna	X			
Herritarrentzako Arreta	X			
Diru-bilketa exekutiboa				X
Lantegi-eskolak	X			
Udako igerilekuak				X
Udal-hiltegia				X
Los Llanos aisiarako zentroa				X
Aterpetxeak				X
Eremu urdina eta lurpeko aparkalekua				X

Entitatearen 2015eko aurrekontu bateratua ez zuen Osoko Bilkurak onetsi. Hori dela eta, ekitaldi osoan zehar aurrekontu luzatuarekin jardun du Udalak. Aurrekontu hori Alkatetzaren 2014ko abenduaren 29ko Dekretuaz onetsi zen Udalerako, eta Musika Eskolaren Patronaturako, berriz, 2014ko abenduaren 22ko Dekretuaz. 2015eko urtarrilaren 8ko Osoko Bilkuran betetze-oinarriak onetsi ziren.

Txostena lau ataletan dago banatuta, sarrera hau barne. Bigarren atalean, Udalaren 2015eko kontu orokorrari buruz daukagun iritzia ematen dugu, eta hirugarrenean Udalaren eta haren partaidetzako merkataritza sozietatearen egoera-orri garrantzitsuenen laburpena jaso dugu. Azkenik, laugarrenean, gure iritzian eraginik ez duten alderdiei buruzko oharrak jaso ditugu (Udalaren egoera ekonomiko eta finantzarioa, aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren helburuak betetzea eta alderdi orokorrak), bai eta Udalaren antolaketa eta barne-kontrola hobetzeko egokitzat jotzen ditugun arlokako iruzkin, ondorio eta gomendioak ere.

Halaber, eranskin bat gehitu da Udalak 2015eko ekitaldiko kontu orokorreari buruz eginiko oroitidazkiarekin.

Lan hau egitean emandako laguntza eskertzen diegu Lizarrako Udaleko eta haren menpeko erakunde autonomoko langileei.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen 19/1984 Foru Legearen 11. artikuluan ezarritakoaren arabera, lan honen emaitzak Lizarrako Udaleko alkateari eta alkate ohiari eman zitzaizkien ezagutzera, alegazioak aurkez zitzaizkien. Jarritako epea iraganda, ez dugu alegaziorik jaso.

## II. 2015eko KONTU OROKORRARI BURUZKO IRITZIA

Lizarrako Udalaren 2015eko ekitaldiko kontu orokorraren fiskalizazioa egin dugu. Haren kontabilitatearen egoera-orriak laburbilduta jaso ditugu txosten honetako III. atalean.

### *Udalaren erantzukizuna*

Kontu-hartzailera da kontu orokorra osatzeko ardura duena. Kontuak halako moduz egin behar ditu non leialki irudikatuko baitituzte Udalaren aurrekontu-likidazioa, ondarea, emaitzak eta finantza-egoera, aplikatzekoa den finantza-informazio publikoari buruzko arau-esparruarekin bat; erantzukizun horrek hartzen ditu iruzurraren edo akatsen ondoriozko ez-betetze materialetatik libre dauden kontu orokorrak egin eta aurkezteko beharrezkoa den barne kontrolaren kontzeptzioa, ezarpena eta mantentzea.

Lizarrako Udalaren 2016ko abuztuaren 1eko Osoko Bilkurak onetsi zituen 2015eko kontuak.

Udalak, urteko kontuak egiteko eta aurkezteko erantzukizunaz gainera, bermatu beharko du urteko kontuetan islatutako jarduerak, aurrekontu- nahiz finantza-eragiketak eta informazioa bat datozela aplikatzekoa den araudiarekin, eta xede horretarako beharrezkoak diren barne kontrol sistematik ezarri beharko ditu.

### *Nafarroako Kontuen Ganberaren erantzukizuna*

Gure erantzukizuna da iritzi bat adieraztea erantsitako kontu orokorren fidagarritasunari buruz eta gure fiskalizazioan oinarrituta egin diren eragiketen legezkotasunari buruz.

Horretarako, erantzukizun hori bete dugu kanpo kontrolako erakunde publikoen fiskalizaziorako oinarritzko printzipioen arabera. Printzipio horiek exijitzen dute etikaren arloko eskakizunak bete ditzagula, bai eta fiskalizazioaren plangintza eta exekuzioa egin dezagula ere, honako helburu honekin: kontu orokorretan arrazoizko segurtasun bat lortzea eta haietan akats materialik ez egotea; eta finantzen egoera-orrietan islatutako jarduketak, finantza-eragiketak eta informazioa, alderdi adierazgarri guztietan, arau indardunen arabera izatea.

Fiskalizazio honek eskatzen du prozedura batzuk aplikatu ditzagula auditoria-ebidentzia bat lortzeko zenbatekoei eta kontu orokorretan adierazitako informazioari buruz, bai eta eragiketen legezkotasunari buruz ere. Hautatutako prozedurak auditorearen irizpidearen arabera dira, horren barne dela kontu orokorren akats materialei buruzko arriskuen balorazioa, akats hori iruzurraren nahiz akatsaren ondoriozkoa denean eta legezkotasunaren ez-betetze aipagarrien ondoriozkoa denean ere. Arriskuari buruzko balorazio horiek egiterakoan, auditoreak barne kontrola hartzen du kontuan –entitateak kontu orokorrak egin ditzan garrantzitsua baita– inguruabarren arabera auditoria prozedura egokiak diseinatze aldera, eta ez entitatearen barne kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzia emateko xedez. Auditoria batek barne biltzen du, era berean, aplikatutako kontabilitate-politiken egokitasuna eta arduradunek egindako kontabilitate-estimazioen arrazoizkotasuna, bai eta kontu orokorren aurkezpena ere, oro har.

Gure ustez lortu dugun auditoria-ebidentziak behar adinako oinarria eta oinarri egokia jasotzen du gure fiskalizazio-iritzia emateko.

Finantzen eta legezkotasunaren betetzeari buruzko fiskalizazioaren emaitzatik honako iritzi hau eratorritzen da.

## II.1. AUDITORIAREN FINANTZARIOKO IRITZIA

### *Iritziaren oinarria, salbuespen batekin*

Ondasunen inbentarioa 1995ekoa da, oraindik eguneratu gabe dago eta ez ditu jasotzen Udalaren ondasun eta eskubide guztiak; hartara, ezinezkoa izan da egoera-balantze bateratuko ibilgetuaren saldoaren arrazoikotasuna egiaztatzea; saldo horrek 37,3 milioi euro gutxiago ditu 2015eko abenduaren 31ko balantzean.

### *Iritzia*

Gure iritzian, "Iritziaren oinarria, salbuespenekin" lerrokadan azaldutako egitateen balizko eraginengatik ez bada, erantsitako kontu orokorrek irudi leiala erakusten dute alderdi esanguratsu guztietan, ondareari, gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioari eta Udalaren 2015eko abenduaren 31ko finantza-egoerari dagokienez, bai eta data horretan amaitutako urteko ekitaldiko emaitza ekonomiko eta aurrekontukoei dagokienez ere, betiere aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideei jarraituz.

## II.2. LEGEZKOTASUNA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

Gure iritziz, Udalaren 2015eko ekitaldiari buruzko finantzen egoera-orrietan islatutako jarduketak, finantza-eragiketak eta informazioa bat datoz, alderdi adierazgarri guztietan, aplikatzekoak diren arauekin.

**III. UDALAREN 2015eko KONTU OROKORRAREN LABURPENA**

Ondoren, 2015eko kontabilitatearen egoera-orri bateratu (Udala gehi erakunde autonomoak eta merkataritza-sozietatea) garrantzitsuenak azaltzen ditugu.

**III.1. 2015eko AURREKONTU BATERATUAREN BETETZEAREN EGOERA-ORRIA****Gastuak kapitulu ekonomikoen arabera**

Deskribapena	Hasierako aurreikuspena	Aldak.	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako betebeharrak	Betetakoa (%)	Ordainketak	Ordainketa (%)	Ordaintzeko dagoena
1. Langile-gastuak	5.989.282	20.400	6.009.682	5.580.436	93	5.495.800	98	84.636
2. Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak	3.407.375	235.935	3.643.310	3.123.906	86	2.687.260	86	436.647
3. Gastu finantzarioak	90.651	0	90.651	12.966	14	5.135	40	7.831
4. Transferentzia arruntak	641.027	55.826	696.853	626.034	90	439.386	70	186.648
6. Inbertsio errealak	46.505	2.407.452	2.453.957	1.272.541	52	1.163.635	91	108.906
7. Kapital-transferentziak	0	124.525	124.525	124.525	100	123.925	100	600
8. Finantza-aktiboak	0	0	0	0	0	0	0	0
9. Finantza-pasiboak	164.625	0	164.625	164.512	100	164.512	100	0
<b>Guztira</b>	<b>10.339.465</b>	<b>2.844.138</b>	<b>13.183.603</b>	<b>10.904.920</b>	<b>83</b>	<b>10.079.653</b>	<b>92</b>	<b>825.268</b>

**Diru-sarrerak kapitulu ekonomikoen arabera**

Deskribapena	Hasierako aurreikuspena	Aldak.	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako eskubideak	Betetakoa (%)	Kobrantzak	% kobrantza	Kobratzeko dagoena
1. Zuzeneko zergak	3.709.336	0	3.709.336	4.948.598	133	3.986.373	81	962.225
2. Zeharkako zergak	325.000	0	325.000	234.714	72	226.628	97	8.086
3. Tasak eta bestelako diru-sarrerak	1.175.783	101.000	1.276.783	1.984.164	155	1.810.396	91	173.768
4. Transferentzia arruntak	5.116.146	26.893	5.143.039	5.122.966	100	4.793.657	93	329.309
5. Ondare bidezko diru-sarrerak	119.897	0	119.897	118.616	99	115.830	98	2.786
6. Inbertsio errealak besterentzea	0	0	0	40.000	0	40.000	100	0
7. Kapital-transferentziak	255.401	218.723	474.124	304.864	64	187.539	62	117.325
8. Finantza-aktiboak	0	2.221.710	2.221.710	0	0	0	0	0
9. Finantza-pasiboak	164.625	0	164.625	0	0	0	0	0
<b>Guztira</b>	<b>10.866.188</b>	<b>2.568.326</b>	<b>13.434.514</b>	<b>12.753.922</b>	<b>95</b>	<b>11.160.423</b>	<b>88</b>	<b>1.593.499</b>



## III.2. 2015eko AURREKONTU-EMAITZA BATERATUA

Kontzeptua	2014ko ekitaldia	2015eko ekitaldia
+ Aitortutako eskubideak	11.552.921	12.753.922
- Aitortutako betebeharrak	-10.791.242	-10.904.921
Aurrekontu-emaiza	761.679	1.849.001
Doikuntzak		
- Finantzaketaren desbideratze positiboak	-425.620	-95.059
+ Finantzaketaren desbideratze negatiboak	304.352	38.367
+ Diruzaintza-gerakinarekin gehikuntza bidez finantzatutako gastuak	996.510	1.067.439
+ Ekitaldiko diruzaintza-gerakinarekin finantzatutako gastuak	0	0
Aurrekontu-emaiza doituia	1.636.921	2.859.748

## III.3. DIRUZAINZTA-GERAKINA 2015eko ABENDUAREN31n

Kontzeptua	2014ko ekitaldia	2015eko ekitaldia
(+) Kobratzeko dauden eskubideak	711.611	737.852
(+) Diru-sarrerak: Aurtengo ekitaldia	1.353.751	1.593.489
(+) Diru-sarrerak: Itxitako ekitaldiak	3.644.039	2.393.464
(+) Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak	-10.549	352.405
(-) Bilketa zaileko eskubideak	-4.275.579	-3.601.507
(-) Aplikatzeko dauden diru-sarrerak	0	0
(-) Ordaintzeko dauden betebeharrak	1.013.953	1.128.064
(+) Gastuen aurrekontua: Aurtengo ekitaldia	681.273	825.268
(+) Gastuen aurrekontua: Itxitako ekitaldiak	7.102	5.282
(+) Diru-sarreren itzulketak	0	0
(-) Aplikatzeko dauden gastuak	0	0
(+) Aurrekontuz kanpoko gastuak	325.579	297.514
(+) Diruzaintzako funts likidoak	3.536.935	4.246.587
(+) Finantzaketaren desbideratze metatu negatiboak	0	0
Diruzaintza-gerakina, guztira	3.234.643	3.856.375
Diruzaintza-gerakina, finantzaketa atxikia duten gastuak direla-eta	90.933	22.488
Baliabide atxikien diruzaintza-gerakina	0	403.051
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	3.143.710	3.430.835

## III.4. 2015eko ABENDUAREN 31ko BALANTZE-EGOERA

## Aktiboa

Deskribapena	2014	2015
A Ibilgetua	69.236.591	37.276.661
1 Ibilgetu materiala	36.085.646	35.929.764
2 Ibilgetu ez-materiala	488.747	500.847
3 Erabilera orokorrerako azpiegiturak eta ondasunak	32.539.587	723.439
4 Herri-ondasunak	0	0
5 Finantza-ibilgetua	122.611	122.611
C Zirkulatuzailea	4.320.719	5.090.752
8 Zordunak	726.227	794.232
9 Finantza-kontuak	3.549.412	4.255.440
10 Aktiboaren beste kontu batzuk	45.080	41.080
11 Aplikatzeko dagoen emaitza (ekitaldiko galera)	0	0
<b>Aktiboa, guztira</b>	<b>73.557.310</b>	<b>42.367.413</b>

## Pasiboa

Deskribapena	2014	2015
A Funts berekiak	66.319.949	35.206.856
1 Ondarea eta erreserbak	37.136.350	4.181.024
2 Ekitaldiko emaitza ekonomikoa (etekina)	-830.717	746.783
3 Kapitaleko diru-laguntzak	30.014.317	30.279.049
C Epe luzeko hartzekodunak	6.136.487	5.971.975
4 Jesapenak, maileguak eta fidantzak, jasotako gordailua	6.136.487	5.971.975
D Epe laburreko hartzekodunak	1.100.777	1.188.542
5 Itxitako aurrekontuetako hartzekodunak eta aurrekontuez kanpokoak	1.015.728	1.134.317
6 Aplikatzeko dauden kontu-sailak eta aldizkatzearen ondoriozko doitzeak	12.056	48.732
8 Pasiboaren beste kontu batzuk	72.957	5.493
E Aldizkatzearen ondoriozko doitzeak	97	40
<b>Pasiboa, guztira</b>	<b>73.557.310</b>	<b>42.367.413</b>

## III.5. GALEREN ETA IRABAZIEN KONTU BATERATUA 2015ean

## Ekitaldiko emaitza arruntak

Zor	2014	2015	Hartzeko	2014	2015
Deskribapena			Deskribapena		
3 Hasierako izakinak	0	0	3 Amaierako erosketak	0	
39 Izakinen balio-galtzeen hornidura	0	0	39 Izakinen balio-galtzeen hornidura	0	
60 Erosketak	0	0	70 Salmentak	633.041	648.118
61 Langile-gastuak	5.569.493	5.576.331	71 Ondasunaren eta enpresaren errenta	933.148	1.393.909
62 Finantza-gastuak	44.569	12.909	72 Produkzioari eta inportazioari lotutako tributuak	3.068.199	3.125.112
63 Tributuak	0	0	73 Errentaren gaineko zerga arruntak	746.571	747.686
64 Lanak, zuzkidurak eta kanpoko zerbitzuak	2.912.120	3.120.270		0	0
65 Gizarte prestazioak	7.777	7.333	75 Ustiapenerako diru-laguntzak	0	0
66 Ustiapenerako diru-laguntzak	0	0	76 Transferentzia arruntak	5.387.464	5.122.966
67 Transferentzia arruntak	1.454.972	651.769	77 Kapitalaren gaineko zergak	485.508	1.310.514
68 Kapital-transferentziak	0	100.000	78 Bestelako diru-sarrerak	480.897	100.987
69 Amortizaziorako eta hornikuntzarako zuzkidurak	2.523.200	2.146.435	79 Beren helbururako aplikatutako hornikuntzak	0	0
80 Ekitaldiko emaitza arrunta 0 (saldo hartzekoduna)	0	834.163	Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo zorduna)	777.303	0
<b>Guztira</b>	<b>12.512.131</b>	<b>12.449.211</b>		<b>12.512.131</b>	<b>12.449.211</b>

## Ekitaldiko emaitzak

Deskribapena	2014ko ekitaldia	2015eko ekitaldia	Deskribapena	2014ko ekitaldia	2015eko ekitaldia
80 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo zorduna)	777.303	0	80 Ekitaldiko emaitza arruntak (Saldo hartzekoduna)	0	834.163
82 Ohiz kanpoko emaitzak (Saldo zorduna)	0	0	82 Ohiz kanpoko emaitzak (Saldo hartzekoduna)	20.589	42.242
83 Balore-zorroaren emaitzak (saldo zorduna)	0	0	83 Balore-zorroaren emaitzak (Saldo hartzekoduna)	0	0
84 Itxitako aurrekontuetako esku-bide eta betebeharren aldaketa (Saldo zorduna)	74.003	129.622	84 Itxitako aurrekontuetako esku-bide eta betebeharren aldaketa (saldo hartzekoduna)	0	0
89 Mozkin garbia, guztira (Saldo hartzekoduna)	0	746.783	89 Galera garbia, guztira (Saldo zorduna)	830.717	0
<b>Guztira</b>	<b>851.306</b>	<b>876.405</b>	<b>Guztira</b>	<b>851.306</b>	<b>876.405</b>

#### IV. OHARPENAK, IRITZIAN ERAGINIK EZ DUTENAK, ETA GOMENDIOAK

Ondoren, azterketa labur bat egiten dugu Udalaren egoera ekonomiko-finantzarioari buruz, aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren helburuak betetzeari buruz eta aurreko ekitaldietako gomendioen jarraipenari buruz; gainera, kudeaketa-arlo garrantzitsu bakoitzari buruzko iruzkin nagusiak eta, Ganberaren iritziz, Udalak aintzat hartu beharko lituzkeen gomendio nagusiak ere aztertzen dira, bere antolamendu-sistemak, prozedurak, kontabilitatea eta barne-kontrola hobetze aldera.

##### IV.1. UDALAREN EGOERA EKONOMIKO-FINANTZARIOA 2015eko ABENDUAREN 31n

Udalaren hasierako aurrekontu bateratuak 10,9 milioi euroko diru-sarrerak eta 10,3 milioi euroko gastuak dauzka; zenbateko horri 2,57 milioi euro gehitu zaizkio aurrekontu-aldaketen bitartez diru-sarreretarako, eta 2,84 milioi, berriz, gastuetarako; horrenbestez, behin betiko aurreikuspenak 13,4 milioi eurokoak dira diru-sarreretarako eta 13,2 milioioiak, berriz, gastuetarako. Aldaketa horiek eragina dute, funtsean, inbertsio errealen kapituluaren, gastuei dagokienez, eta finantza-aktiboetan, diru-sarrerei dagokienez.

Aitortutako betebeharrak 10,9 milioi eurokoak izan dira eta ehuneko 83ko betetze-maila izan dute. Betetze-maila hori justifikatzen da, nagusiki, inbertsio errealen kapituluaren betetze eskasarengatik (behin betiko aurreikuspenen ehuneko 52).

Aitortutako eskubideek 12,8 milioi euro hartzen dute guztira, eta betetze-maila ehuneko 95ekoa da. Aurreikusitakoaz oso gaineratik beteko dira zuzeneko zergen eta tasen bidezko diru-sarrerak, prezio publikoak eta bestelako diru-sarrerak, zeinak heldu baitira, hurrenez hurren, gainbalioetatik eta itxitako ekitaldietako zorrei aplikatutako errekaru eta berandutza-interesetatik. Bestetik, zeharkako zergen bidezko diru-sarrerak (EIOZa) eta kapital-transferentziak aurreikusitakoaz oso behera bete dira.

Izaerari begiratuta, diru-sarreraren ehuneko 97 eta gastuen ehuneko 86 arruntak dira.

Laburbilduz, taula honetan adierazten da zertarako erabili eta nola finantzatu den Udalaren gastuen 100 euroko bakoitza:

Gastuaren izaera	Zenbatekoa	Finantza iturria	Zenbatekoa
Langileak	51	Tributu bidezko diru-sarrerak	56
Bestelako gastu arruntak	34	Transferentziak	43
Kapital-eragiketak	13	Ondare bidezko diru-sarrerak eta bestelakoak	1
Finantza-zama	2	Zorduntzea	0
	100		100

Hona Udalaren 2015erako aurrekontuaren betetzeari buruzko datu ekonomikoak eta 2014koarekiko alderaketa:

	2014	2015	Aldea (%) 2015/2014
Aitortutako betebeharrak, guztira	10.791.242	10.904.921	1
Likidatutako eskubideak, guztira	11.552.921	12.753.922	10
Gastuen betetzea (%)	79	83	5
Diru-sarreraren betetzea (%)	85	95	12
Ordainketak (%)	94	92	-2
Kobratutakoa (%)	88	88	0
Gastu arruntak (1. kapitulutik 4.era)	9.731.662	9.343.343	-4
Funtzionamendu-gastuak (1., 2. eta 4. kapituluak)	9.687.071	9.330.377	-4
Kapital-gastuak (6. eta 7. kapituluak)	897.035	1.397.066	56
Finantza-eragiketen gastuak (8. eta 9. kapituluak)	162.545	164.512	1
Diru-sarrera arruntak (1. kapitulutik 5.era)	11.049.524	12.409.058	12
Tributu bidezko diru-sarrerak (1. kapitulutik 3.era)	5.763.350	7.167.476	24
Kapital bidezko diru-sarrerak (6. eta 7. kapituluak)	503.397	344.864	-31
Diru-laguntzen menpekotasunak (%)	48	43	
Tributu bidezko diru-sarrerak gastu arrunten gainean (%)	59	77	
Aurrekontuko saldo ez-finantzarioa	924.224	2.013.513	118
Aurrekontu-emaizta doituak	1.636.921	2.859.748	75
Aurrezki gordina	1.362.453	3.078.682	126
Finantza-zama (3. eta 9. kapituluak)	207.135	177.478	-14
Aurrezki garbia	1.155.318	2.901.204	151
Zorpetze-maila (%)	1,87	1,43	
Zorpetze-muga (%)	12,33	24,81	
Zorpetze-ahalmena (%)	10,46	23,38	
Diruzaintza-gerakina, guztira	3.234.643	3.856.375	19
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	3.143.710	3.430.835	9
Zor bizia	6.136.487	5.971.975	-3
Diru-sarrera arrunten gaineko zor bizia (%)	56	48	
Zor bizia biztanleko	448	436	-3
Aurrezki gordinaren gaineko zor bizia	4,5	1,9	-58

Aurreko taulako datuei dagokienez, kontuan hartu beharra dago 2015ean 1,3 milioi euroko diru-sarrerak erregistratu direla. Haien kobrantza ezohikoa izan da, zeren eta ondasunak eskuratzearen bidez egin baita, "Aurrekontuko diru-sarrerak" izeneko IV.9 atalean azaldu bezala, eta ondoren egiten diren iruzkinetan aipatzen den bezala.

2015ean, Udalak ehuneko bat gehiago gastatu du; diru-sarrerak, berriz, aurreko ekitaldikoak baino ehuneko 10 handiagoak izan ditu.

Gastu arruntetan, berriz, ehuneko lauko jaitsiera izan da; eta diru-sarrera arruntek, aldiz, ehuneko 12 egin dute gora. Tributu izaerako diru-sarrerak ehuneko 24 igo dira.

Aurrekontu saldo ez-finantzarioa positiboa da, 2 milioi eurokoa; horrek adierazten du diru-sarrera ez-finantzarioak izaera bereko gastuak finantzatzeko behar adinakoak direla. 2014an, saldo hori ere positiboa izan zen, 0,9 milioi eurokoa.

2015ean, bai aurrezki gordinak, bai aurrezki garbiak balio positiboak dauzkate, 3.078.682 euro eta 2.901.204 euro, hurrenez hurren, eta ehuneko 126 eta ehuneko 151 igo dira aurreko urteko balioekin alderatuta.

Zorpetze-maila ehuneko 1,43koa da, eta ehuneko 24,81eko muga du; horregatik, hain zuzen, oraindik ere badu zorpetze berria hartzeko ahalmen ekonomikoa.

Diruzaintzako guztizko gerakina 3.856.375 eurokoa da, eta ehuneko 19 egin du gora 2014koarekin alderatuta. Gastu orokorretara bideratutakoa 3.430.835 eurokoa da, eta ehuneko bederatzi egin du gora 2014ko ekitaldiarekiko.

Epe luzeko zorra 5.971.975 eurokoa da 2015eko abenduaren 31n, eta ehuneko 3 egin du behera 2014ko abenduaren 31koarekin alderatuta; zor hori –biztanle bakoitzeko 436 eurokoa dena, guztira– entitatearen diru-sarrerara arrunten guztizkoaren ehuneko 48 da. Bada, ehuneko hori gaur egun zorpetze berria hartzea mugatzen duen diru-sarrerara arrunten ehuneko 110eko lege-mugaren azpitik dago.

Lizarrako Udalak 2006-2015 aldian honako bilakaera hau izan du diru-sarreretan eta gastuetan:

#### Diru-sarrerak (aitortutako eskubide garbiak)

Kapitulu-izena	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015
1 Zuzeneko zergak	3.379.976	3.586.289	3.690.556	3.781.479	3.883.146	3.771.710	3.904.817	4.035.536	4.033.453	4.948.598
2 Zeharkako zergak	1.107.773	920.130	1.879.159	461.378	410.898	297.003	231.238	312.762	266.823	234.714
3 Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrerak batzuk	1.279.762	1.462.989	1.671.159	1.904.701	1.428.400	1.476.303	1.423.706	1.325.362	1.463.073	1.984.164
4 Transferentzia arruntak	5.008.495	5.014.879	5.747.332	5.921.668	5.408.169	5.595.835	5.150.195	4.947.117	5.131.010	5.122.966
5 Ondare bidezko diru-sarrerak eta herri-lurren aprobetxamendua	137.926	204.400	253.844	574.304	409.288	387.386	-427.397	124.010	155.164	118.616
6 Inbertsio errealen beste-erentzea	6.096	1.122.592	685.611	1.944.115	2.000	2.000	1.004.338	80.000	40.000	40.000
7 Kapital-transferentziak	889.079	8.098.735	4.536.123	4.828.690	5.993.597	1.546.487	418.319	495.770	463.397	304.864
8 Finantza-aktiboak	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
9 Finantza-pasiboak	5.472.084	0	0	0	0	0	0	0	0	0
<b>Guztira</b>	<b>17.281.191</b>	<b>20.410.014</b>	<b>18.463.784</b>	<b>19.416.335</b>	<b>17.535.498</b>	<b>13.076.724</b>	<b>11.705.216</b>	<b>11.320.557</b>	<b>11.552.920</b>	<b>12.753.922</b>

#### Gastuak (aitortutako betebeharrak)

Kapitulu-izena	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015
1 Langile-gastuak	5.135.190	5.183.448	5.851.769	6.008.245	5.941.947	6.061.145	5.390.318	5.366.786	5.537.666	5.580.436
2 Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak	3.374.211	3.492.309	3.837.080	3.695.712	3.556.542	3.413.740	2.943.012	3.120.072	2.918.785	3.123.906
3 Finantza-gastuak	74.978	132.610	106.624	162.217	114.715	173.643	151.254	88.596	44.591	12.966
4 Transferentzia arruntak	899.794	641.137	890.454	661.906	641.682	575.802	602.168	749.263	1.230.620	626.034
6 Inbertsio errealak	5.125.360	7.546.614	12.707.358	7.814.311	5.887.038	2.908.101	938.793	872.697	897.035	1.272.541
7 Kapital-transferentziak	0	0	0	0	0	0	0	0	0	124.525
8 Finantza-aktiboak	60.500	0	6.944	0	0	0	0	5.000	0	0
9 Finantza-pasiboak	144.171	172.759	135.875	152.128	246.193	154.849	156.145	160.934	162.545	164.512
<b>Guztira</b>	<b>14.814.204</b>	<b>17.168.877</b>	<b>23.536.104</b>	<b>18.494.519</b>	<b>16.388.117</b>	<b>13.287.280</b>	<b>10.181.690</b>	<b>10.363.348</b>	<b>10.791.242</b>	<b>10.904.920</b>

Taulako datuetatik ondorioztatzen denez, 2011ra arte inbertsio-prozesu adierazgarria izan da, zeinak kapital-transferentzien bidezko diru-sarrerara handi samarrak ekarri baititu. Data horretatik aurrera, ikusten da gastu arruntari eutsi egin zaiola, eta zergen bidezko diru-sarrerak igoera txiki bat izan dutela.

Udalak aurrera eraman duen jardueraren bilakaera 2011ko eta 2015eko honako adierazle hauen alderaketatik ondorioztatzen da.

Adierazlea	2011	2015	Aldea (%), 2015/2011
Zorpetze-ahalmena	% 10	% 23	134
Inbertsio indizea	% 22	% 13	-41
Gastu arrunta biztanleko	717 €	682 €	-5
Tributu bidezko diru-sarrerak biztanleko	389 €	523 €	34

Ikus daitekeen bezala, 2011tik 2015era Udalak inbertsioak gutxitu diru; behera egin du, hala-ber, gastu arruntaren zenbatekoak; hobera egin dute biztanle bakoitzeko diru-sarrerak, eta gora egin du, azkenik, zorpetze-ahalmenak.

Horrenbestez, amaierako laburpen gisa, Lizarrako Udalak bere finantza-egoera hobetu du, neurri handi batean azken urteetan gastuei eusteko hartu diren neurriei esker, finantza-orekari eustera bideratuta baitzeuden.

#### IV.2 AURREKONTU-EGONKORTASUNEN ETA FINANTZA-IRAUNKORTASUNAREN HELBURUAK BETETZEA.

Aurrekontu-egonkortasunari eta Finantza-iraunkortasunari buruzko Lege Organikoaren bete-tzea aztertu dugu, haren hiru atal nagusiei dagokienez:

Aurrekontu-egonkortasunaren araua: emaitza positiboa da, ondoren adierazten dugun bezala:

Kontzeptua	2014	2015
Aurrekontuko saldo ez finantzarioa	924.224	2.013.513
Diru-sarreren bidezko doikuntzak	471.910	-597.058
Interesen bidezko doikuntzak	0	55
<b>Finantzaketa-ahalmena</b>	<b>1.396.134</b>	<b>1.416.510</b>

Gastuaren araua: 2015eko ekitaldiko gastu zenbakarria 4.428 euro txikiagoa da 2014ko ekitaldiko baino; horrenbestez, bete egiten da gastuaren araua:

Kontzeptua	2014	2015
Gastua (1. kapitulutik 7.era)	10.628.697	10.740.409
Zorpetze-interesengatiko doikuntzak	-32.425	-4.592
Aplikatzekoak diren hartzekodunengatiko doikuntzak	-2.070.711	-2.103.852
Gastu zenbakarria	8.525.561	8.631.965
BPGaren erreferentziako tasa	% 1,3	
2015eko gastu zenbakarria	8.636.392	8.631.965
2015erako behin betiko gastu zenbakarria	8.636.392	8.631.965

Finantza-iraunkortasunaren araua: 2015eko abenduaren 31ko zor bizia 5.971.975 eurokoa da. Zenbateko horrek 2015eko ekitaldiko diru-sarrera arrunten ehuneko 48 egiten du. Diru-sarrera horiek 12.409.058 eurokoak izan dira, eta zor biziaren muga, berriz, diru-sarrera arrunten ehuneko 110ekoa da.

Halaber, Udalak, oro har, bete egiten ditu legedia indardunean hornitzaileei ordainketak egiteko ezarritako epeak.

Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko aldia 14,31 egunekoa izan da 2015ean. Epe hori laburragoa da merkataritza-eragiketarako ordaintzeko legezkoa den aldia baino (30 egun natural, fakturen erregistroan faktura edo agiri baliokidea jasotzen denetik kontatuta).

#### IV.3 AURREKO TXOSTENETAN KONTUEN GANBERAK EMANDAKO AHOLKUAK BETETZEA.

Ganbera honen 2014ko ekitaldiko txostenari dagokionez, garrantziko aholku hauek oraindik gauzatzeko daude, txosten honen V. atalean aipatzen den bezala:

- *Udalaren ondasun eta eskubide guztien inbentarioa egitea eta onestea, eta dokumentuen artxiboa kontrolatzeko eta inbentarioko alden eta bajen jarraipena egiteko sistema bat ezartzea, hura etengabe gaurkotzeko eta kontabilitateko ibilgetuarekin duen lotura bermatu eta bideratzeko aukera emanen duena.*
- *Hirugarren batekin egindako kontratuen indarraldia gehiago kontrolatzea eta dagokion lizitazio-prozeduraren hasiera behar adinako denboraz planifikatzea.*
- *Udal-sozietateak jarduerarik ez duenez, erakundeak berak existitu behar duen aztertzea.*

#### IV.4. ALDERDI OROKORRAK

Entitatearen 2015eko aurrekontu orokor bateratua ez zuen Udalaren Osoko Bilkurak onetsi, I. atalean aipatu den bezala.

Ez da ikusi 2015ekoak izan eta 2016an kontabilizatutako kantitate handiko fakturarik.

Udalaren ondasunen inbentarioa 1995ekoa da; ez da gaurkotu, eta Udalaren ondasun guztiak ez daude bertan txertatuta. Hala ere, 2003. urteaz geroztik udal-zerbitzuei atxikitako udal-ondasunen zerrenda bat du, kostuak kalkulatzeko; ondasunen altak zerrenda horretan adierazten dira, eta ez inbentarioan; ez dago kontabilitatearen eta inbentarioaren arteko loturarik. Erabilera publikoko ondasunak, behin erabilera orokorrerako eman ondoren, kontabilitatean ez dira aldatzen erabilera orokorrari emandako ondarearen kontura.

Udalak aurkeztutako oroitidazkian ez dira jasotzen Gedemelsa sozietate publikoaren urteko kontuak –sozietate horrek ez du jarduerarik–; halaber, haren datuak balantze bateratuan jasotzen dira.

Udalak 2015ean egindako ordainketei buruz egindako azterketatik ondorioztatzen da ezen, orokorrean, indarreko araudian ezarritako ordainketa-epeak betetzen ari direla.

Udala sarturik dagoen prozedura judizialeatik, zeinak IV.12 atalean deskribatzen baitira laburpen gisa, 2014. urteari dagozkion txostenean Oncinedako Hirigintza Hitzarmenari buruz aipatzen direnak nabarmendu behar ditugu, bai eta 2015ean eta 2016an lursailen balio-gehikuntzaren gaineko zerga dela-eta ezarritakoak ere, zeinak, beste txosten batzuetan iruzkindu dugun bezala, zenbait herritan ezarri baitira.

Honako hauek dira Udalaren 2015eko abenduaren 31ko zor bizia eta muga-eguneratzeen egutegia:

Ekitaldia	Amortizazioa	Ehunekoa	Ehuneko metatua
2016	163.600	3	3
2017	435.198	7	10
2018	435.198	7	17
2019	305.309	5	22
2020	272.510	5	27
2021 – 2036	4.360.161	73	100
<b>Guztira</b>	<b>5.971.976</b>	<b>100</b>	



Hona gure gomendioak:

- *Udal ondasun eta eskubide guztien inbentario balioztatua egitea eta onestea.*
- *Udalaren inbentarioa etengabe gaurkotzea eta kontabilitatearekin lotua egotea ahalbidetuko duten prozedurak taxutzea eta aplikatzea.*
- *Udal ondasunak –jabari publikoak, ondarekoak eta herri-ondasunak– eskrituretan jaso eta erregistratzeko prozesua osatu behar da.*

#### IV.5. LANGILEAK

Langileen gastu bateratuak 5.580.436 euro egiten du; 5.267.380 euro Udalarari dagozkie, eta 313.057 euro, berriz, "Julián Romano" Musika Patronatuari. Gastu horiek 2015ean sortutako guztiaren ehuneko 51 eta gastu arrunten ehuneko 60 egiten dute.

2014ko ekitaldiarekin alderatuta, kapitulu honen gastuak ehuneko bat egin du gora.

Hona kontuak banakatuta, 2014koekin alderatuta:

	Aitortutako betebeharrak		Ehunekoa Aldea
	2014	2015	
Goi-karguak	135.418	134.910	-1
Kabineteko behin-behineko langileak	52.263	54.559	4
Funtzionarioak	2.070.870	1.900.069	-8
Lan-kontratudun langileak	1.428.340	1.515.621	6
Gizarte-zamak	1.850.774	1.975.277	7
<b>Guztira</b>	<b>5.537.665</b>	<b>5.580.436</b>	<b>1</b>

2015ean, ez da plantilla organikoa onetsi. Hori dela eta, indarrean jarraitzen du Osoko Bilkurak 2014ko otsailaren 6an onetsi eta 2014ko martxoaren 28ko NAOn argitaratutakoak. Haren osaera honako taula honetan jasotzen da:

Entitatea	Lanpostuak, guztira	Lanpostu hutsak
Udala	94	25
"Julián Romano" Musika Patronatua	16	-
<b>Guztira</b>	<b>110</b>	<b>25</b>

Datu horietatik ondorioztatzen da bete gabe dauden postuak ehuneko 23 inguru direla, guztiak Udalean.

2015eko abenduaren 31n, honako hauek dira Udalaren langileak:

Langileak	2015
Izendapen askea	1
Funtzionarioak	55
Lan-kontratudun finkoak	5
Aldi baterako lan-kontratudunak	73
Alkatea	1
<b>Guztira</b>	<b>135</b>

Langileei dagokienez, 2015eko abenduaren 31n, 135 langile zeuden, horien barne zeudela enplegu sozial babestuko 15 langileak, zeinei 2015eko abenduaren 30ean baja eman baitzitzaien, eta tailer-eskolako 17 langileak, zeinei azaroaren 30ean eta abenduaren 15ean eman baitzitzaien baja.

Udalaren berariazko langileak honako arlo hauei daude atxikiak:

Arloak	2015. zenbakia
Bulegoak	11
Polizia	26
Obra-brigada	6
Lorategietako brigada	4
Kultur etxea	2
Arlo ekonomikoa	3
Gizarte ongizatea	13
Emakumea	1
Ikastetxe publikoa	5
Hirigintza	4
Museoa	2
Kirolak	1
Gazteria	4
INFOLAN	1
0-3 urteko ikastetxea	12
Musika Eskola	1
Margolaritza ikasgelak	3
Euskara	1
Ostalaritza-tailerra	17
Gizarte enplegu babestua	15
Gazte bermea	2
Alkatea	1
<b>Guztira</b>	<b>135</b>

“Julián Romano” Musika Patronatuko 2014ko eta 2015eko abenduaren 31ko langileak ez dira aldatu, 16 langile izaten jarraitzen baitute.

Langileen gastuen lagin bat aztertuta ondorioztatzen da, oro har, ordaindutako ordainsariak egindako lanerako ezarritakoak direla, egindako atxikipenak zuzenak direla eta langile-gastuak behar bezala kontabilizatuta daudela.

2015eko ekitaldian soldata-igoerarik ez dela izan ikusi da orobat.

*Gomendatzen dugu kasuko plantilla organikoa onestea, eta plantilla organikoan sartuta dauden lanpostuak arrazoizkotasunez bete diren aztertzeko prozesua osatzea, hura benetako premietara egokitzen dela egiaztatuta ahal izateko.*

## IV.6. ONDASUN ARRUNTETAKO ETA ZERBITZUETAKO GASTUAK

Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuetako betebeharrak aitortu bateratuek (3.123.906 euro) ekitaldiko gastu osoen ehuneko 29 egiten dute, eta eragiketa arruntetako gastuen ehuneko 33. 2014. urtearen aldean, ehuneko 7 egin dute gora.

Kapitulu horretako gastu bateratutik, Udalari 3.074.888 euro dagozkie, eta "Julián Romano" Musika Patronatuari, berriz, 49.019 euro.

2015eko ekitaldian egindako honako esleipen hau aztertu dugu:

Deskribapena	Kontratu mota	Esleipen prozedura	Lizitazioaren zenbatekoa	Eskaintza-egileen kopurua	Esleipenaren zenbatekoa
Arieta Haur Eskolako jantokirako hornidura	Hornidura	Prozedura irekia, Europan publikitate eginda, eskaintza onenarentzat	202.648 3,92 € menu bakoitzeko	2	3,15 € menu bakoitzeko

Aurreko berrikuspena eginda eta gastuen lagin bat aztertu ondoren, espedienteak izapidetzean dagoen kontratazio-araudia, oro har, bete egiten dela ikusi da; halaber, ikusi da gastuak behar diren ordainagietan justifikatuta daudela eta zuzen kontabilizatu direla. Hala eta guztiz ere, ikusi da zenbait kontratutan gaitortu egin dela araudian finkatutako gehieneko indarraldia.

*Gomendatzen dugu kontratu-espedienteen indarraldiaren gaineko kontrola areagotzea eta garaiz planifikatzea kasuko lizitazio prozeduraren hasiera.*

## IV.7. TRANSFERENTZIA ARRUNTENGATIKO GASTUAK

697.000 euroko behin betiko aurreikuspenekin, kapitulu horrek 626.000 euroko gastuak izan ditu; aurreko urtean baino ehuneko 49 gutxiago da hori.

Jaitsiera horren azalpena da, funtsean, EIOZaren itzulketa, 0,6 milioikoa. Izan ere, zenbateko hori aurreko urteetan eskatu eta 2014an ordaindutakoa da.

2015eko gastuaren xehetasunak eta haren eta 2014koaren arteko alderaketa honako taula honetan ageri dena da:

	Aitortutako betebeharrak		Ehuneko Aldea
	2014	2015	
Toki entitateei	11.481	11.274	-2
Familiei eta irabazi asmorik gabeko erakundeei	610.225	614.760	7
EIOZaren itzulketa	608.914	0	
<b>Guztira</b>	<b>1.230.620</b>	<b>626.034</b>	<b>-49</b>

Gastuen lagin bat aztertu ondoren egindako azterketatik, ikusi da espedienteak izapidetzean dagoen kontratazio-araudia, oro har, bete egiten dela, eta gastuak zuzen kontabilizatu direla.

## IV.8. INBERTSIOAK

Inbertsioen kapituluko aurrekontu bateratua, 2015erako, 2.453.957 eurokoa izan da.

Egindako inbertsioak, 1.272.541 euro egiten dutenak, Udalari dagozkio guztiz Zenbateko hori Udalak ekitaldian egindako gastu guztien ehuneko 12 egiten dute. Betetze-maila ehuneko 52koa izan da, eta 2014an egindako inbertsioekin alderatuta, ehuneko 42 igo da.

Honako hauek izan dira 2015ean eginiko inbertsioetako gastu nagusiak:

Inbertsioa	2014	2015
Erabilera publikorako azpiegitura eta ondasunetako inbertsioa	591.687	310.849
Zerbitzuen funtzionamendu operatiboari lotutako inbertsioa	287.198	949.593
Inbertsio ez-materialak (plan orokorra, hirigintza ordenantza)	18.150	12.100
<b>Guztira</b>	<b>897.035</b>	<b>1.272.542</b>

2015eko ekitaldian egindako honako esleipen hauek aztertu ditugu (BEZik gabe)

Deskribapena	Kontratu mota	Esleipen prozedura	Zenbatekoa zenbatekoa	Eskaintza-egileen kopurua	Zenbatekoa prozedura
San Benito komentua zaharberritzea	Obrak	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik behera. Eskaintzarik onena	312.240	5	218.880
Oncineda kirol karparen erreforma	Obrak	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik behera. Eskaintzarik onena	256.580	9	218.940

Gastuen lagin bat aztertu ondoren egindako azterketatik, ikusi da espedienteak izapidetzean dagokien kontratazio-araudia, oro har, bete egiten dela, eta gastuak zuzen kontabilizatu direla.

## IV.9. AURREKONTUKO DIRU-SARRERAK

2015eko ekitaldian aitortutako eskubide bateratuek 12.753.922 euro egiten dute; 197.020 "Julián Romano" Musika Patronatutik heldu dira. Betetze-maila ehuneko 95ekoa izan da; 2014an, ordea, ehuneko 85ekoa izan zen.

Diru-sarreraren ehuneko 97 eragiketa arruntei dagozkie, eta ehuneko 3 kapital-eragiketei.

2014ko ekitaldiarekin alderatuta, aitortutako eskubide bateratuak ehuneko 10 igo dira, eta alde hau izan dute, atalez atal (eurotan):

Diru-sarreraren kapituluak	Aitortutako betebeharrak		Ehunekoa Aldea
	2014	2015	
1. Zuzeneko zergak	4.033.453	4.948.598	23
2. Zeharkako zergak	266.823	234.714	-12
3. Tasak, prezio publikoak eta bestelako diru-sarrerak	1.463.073	1.984.164	36
4. Transferentzia arruntak	5.131.010	5.122.966	0
5. Ondare diru-sarrerak	155.164	118.616	-24
<b>Diru-sarrera arruntak (1. kapitulutik 5.era)</b>	<b>11.049.523</b>	<b>12.409.058</b>	<b>12</b>
6. Inbertsio errealeen besterentzea	40.000	40.000	0
7. Kapital transferentziak	463.397	304.864	-34
<b>Kapital bidezko diru-sarrerak (6. eta 7. kapituluak)</b>	<b>503.397</b>	<b>344.864</b>	<b>-32</b>
8. Finantza-aktiboak	0	0	0
9. Finantza-pasiboak	0	0	0
<b>Finantza-eragiketengatiko diru-sarrerak (8. eta 9. kapituluak)</b>	<b>0</b>	<b>0</b>	<b>0</b>
<b>Guztira</b>	<b>11.552.920</b>	<b>12.753.922</b>	<b>10</b>

2015eko ekitaldian, 2014an onetsitako tarifak aplikatu dira.

Hurrengo taulan udal zerga bakoitzeko aitortu diren eskubideen konparazioa erakusten dugu:

Zerga	Aitortutako betebeharrak		Ehunekoa Aldea
	2014	2015	
Lurraren kontribuzioa	2.381.053	2.472.787	4
Ibilgailuak	746.571	747.686	0
Lurren balio-gehikuntza	485.508	1.310.514	170
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	420.323	417.612	-1
EIOZa	266.823	234.714	-12
<b>Guztira</b>	<b>4.300.278</b>	<b>5.183.313</b>	<b>21</b>

Udalaren zergen bidezko diru-sarrerek ehuneko 21 egin dute gora 2014arekin alderatuta. Nabarmentze-koa da hiri-lurren balio gehikuntzaren gaineko zergaren bidezko diru-sarrerek 825.000 euro egin dutela gora; horietatik 719.511 euro direla-eta errekurtsioa aurkeztu da. Aipatu beharra dago, era berean, EIOZa ehuneko 12 jaitsi dela.

Udalak aplikatzen dituen tasak Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/95 Foru Legeak agintzen dituen tasa ertain/altuen tartean daude, ondoren aipatzen den bezala:

Zerga	Lizarrako Udala	2/95 Foru Legea
Lurraren kontribuzioa	0,2705	0,10 – 0,50
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga (JEZ)	1,4	1 – 1,4
Lurren balio-gehikuntza	17,10	8 – 20
5 urte bitarte	2,94	2,2 – 2,3
10 urte bitarte	2,60	2,1 – 3,2
15 urte bitarte	2,37	2,0 – 3,1
20 urte bitarte	2,37	2,0 – 3,1
Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga (EIOZ)	5	2 – 5

Diru-sarreraren aurrekontuko kontu-sailen lagin baten gainean azterketa egin ondoren, egiaztatu ahal izan dugu egoki izapidetu eta kontabilizatu direla, oro har.

Tasen, prezio publikoen eta bestelako diru-sarreraren bidezko diru-sarrerek ehuneko 36 egin dute gora 2014ko ekitaldiarekin alderatuta. Igoera hori azaltzen da, neurri handi batean, 2015ean 232.107 euro eta 258.700 euro, hurrenez hurren, egiten duten berandutza-interesak eta errekarquak aitortu direlako, Miguel de Eguia Industrialdeko 2010eko ekitaldiko urbanizazio-kuotak direla-eta: 1,29 milioi euro egiten dute. Guztizko zorra, 1,78 milioi euro egiten duena, aipatutako industrialdeko lursailak permutatzeko eta erosteko eragiketa baten bidez kobratu da; horrekin, era brean, gainbalioen bidezko diru-sarrera batzuk sortu dira, 60.449 eurokoak; Agentzia Exekutiboaren gastuak, berriz, 80.000 eurokoak izan dira.

Transferentzia arrunten bidezko diru-sarrerak, zeinak ez baitira ia aldatu 2014tik, 5,12 milioi eurokoak dira, eta 2015eko aurrekontuko diru-sarreraren ehuneko 40 egiten dute. Kapital-transferentzien bidezko diru-sarrerek ehuneko 34 egin dute behera 2014koekin alderatuta, urbanizazio-kuotetan diru-sarrera txikiagoak izatearen ondorioz.

Inbertsioen besterentzei buruzko kapituluak 0 euroko behin betiko aurrekontua dauka, eta 40.000 euroko aurrekontu-betetzea 2015ean eta 2014an. 2015ean izan diren besterentze bakarrak bi garaje-plazena izan da, autobus geltokiko lurpeko aparkalekuak.

#### IV.10. ITXITAKO AURREKONTUAK (DIRU-SARRERAK)

Zorrek Biltzeko Zerbitzua Coordinadora de Gestión de Ingresos SAL enpresak kudeatzen du.

Hona hemen 2015ean egindako kobrantzen eta itxitako aurrekontuetako diru-sarreretatik 2015eko abenduaren 31n kobratzeko dauden saldoen laburpen bat:

Urtea	Hasierako saldoa	2015ean kobratutakoa	Kaudimen gabe-tasunak eta beste	Amaierako saldoa	Amaierako saldoaren gainean (%)	Hasierako saldoaren gainean kobratutakoa (%)
2014	1.332.489	1.047.809	-1.750	282.930	12	79
2013	265.255	62.842	0	202.413	9	24
2012	216.494	22.033	0	194.461	8	10
2011	285.671	12.994	0	272.677	11	5
2010	1.621.254	1.303.879	0	317.375	13	80
2009a eta aurrekoak	1.147.108	23.499	0	1.123.609	47	2
<b>Guztira</b>	<b>4.868.271</b>	<b>2.473.056</b>	<b>-1.750</b>	<b>2.393.465</b>	<b>100</b>	<b>51</b>

Hona hemen itxitako ekitaldietatik kobratzeko dauden saldoen xehetasunak, diru-bilketako kontzeptuaren arabera:

Zerga	Zenbatekoa	Guzt. gain. %
Lurraren kontribuzioa	313.004	13
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga (JEZ)	214.724	9
Lurren balio igoeraren gaineko zerga.	48.321	2
Ibilgailuen gaineko zerga	287.786	12
Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga (EIOZ)	36.563	2
Trafiko isunak	610.810	25
Urbanizazio kuotak	294.727	12
Kontratua ez betetzeagatiko kalte-ordainak, 2009	490.943	21
Gainerakoa	96.587	4
<b>Guztira</b>	<b>2.393.465</b>	<b>100</b>

*Gomendatzen dugu bultzatzea zergak, tasak eta zerbitzuetako prezioak kobratzea erraztuko duten metodoak.*

#### IV.11. 2015eko ABENDUAREN 31ko BALANTZE BATERATUA ETA 2015eko EKITALDIKO EMAITZEN KONTU BATERATUA

2015ean, ibilgetuaren eta ondarearen balioa 32,1 milioi euro jaitsi da: 2015eko abenduaren 31n azpiegitura gisa eta erabilera orokorrera bideratutako ondasun gisa erregistratuta ageri ziren elementuak eskuratzeari zegokion kostua da hori, kontuan hartu gabe balio horren gainean egun horretara arte zuzkitutako amortizazioak.

Gedemelsa sozietate partaidetuak 2015eko abenduaren 31ko aktiboak eta pasiboak bateratzean, sozietate horren inbertsio-balioaren deuseztatzea erregistratu da, 60.500 euro, eta ibilgetu materialaren saldoa beheratu da, ibilgetu finantzarioa beheratu beharrean. 2014ko abenduaren 31n, deuseztatze horren ondorioz, finantza-kontuen saldoa beheratu zen, ibilgetu finantzarioa beheratu beharrean.

Epe luzeko maileguetako eta banku eta finantza-kontuetako saldoek epe luzeko kreditu-kontu batean baliagarri dagoen zenbatekoa jasotzen dute, 4,2 milioi euro eta 3,5 milioi euro 2015eko eta 2014ko abenduaren 31n, hurrenez hurren.

#### IV.12. GORABEHERAK

Honako hauek dira 2015eko abenduaren 31n irekita dauden prozedura judizialak:

a) Kontuen Ganberaren 2014ko ekitaldiari buruzko txostenean jada adierazita datozen gaiak.

2014ko txostenean aipatzen zen bezala, ebazpen judiziala ematearen zain daude Udalaren aurka aurkeztutako bi apelazio-errekurtso, Oncinedako hirigintza-hitzarmenari buruzkoak, 607.272 eta 1.117.629 euro egiten dutenak.

b) 2015eko prozedura judizialak

Nafarroako Administrazio Auzitegian aurkeztutako gora jotzeko 8 errekurtsu, 2 zergadunenak, hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zerga dela-eta alkatetzaren dekretu bidez onetsitako likidazioaren aurkakoak. Gora jotzeko errekurtsoen gutzizko kopuruak 312.133 euro egiten du.

Administrazioarekiko auzi-errekurtsua, zergadun batek Nafarroako Administrazio Auzitegiaren ebazpen baten aurka aurkeztutakoa; azken horren bidez, ezetsi egin zen hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zerga dela-eta alkatetzaren dekretu bidez onetsitako 18.048 euroko likidazioen aurka aurkeztutako gora jotzeko errekurtsua.

Udalak aurkeztutako administrazioarekiko 3 auzi-errekurtso, Nafarroako Administrazio Auzitegiaren ebazpenen aurkakoak; horien bidez, baietsi egin ziren hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zerga dela-eta alkatetzaren dekretu bidez onetsitako likidazioen aurka aurkeztutako gora jotzeko errekurtsoak. Udalaren administrazioarekiko auzi-errekurtsoko zenbatekoak 39.418 euro egiten du.

Gainera, 2016an, honako errekurtso hauek aurkeztu dira 2015eko likidazioen aurka:

Nafarroako Administrazio Auzitegian aurkeztutako gora jotzeko errekurtsoa, zergadun batena, hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zerga dela-eta alkatetzaren dekretu bidez onetsitako 309.761 euroko likidazioen aurkakoa.

Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Udalak Nafarroako Administrazio Auzitegiaren ebazpen baten aurka aurkeztutakoa; azken horren bidez, partzialki baietsi zen hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zerga dela-eta alkatetzaren dekretu bidez onetsitako 40.151 euroko likidazioen aurka aurkeztutako gora jotzeko errekurtsoa.

#### IV.13. HIRIGINTZA

Udalak bere baliaideekin egiten ditu hirigintzako zereginak, Hirigintza Zerbitzuen Arloaren birtartez. Jarduera berekiak gartzeko esleitutako langileak honako hauek dira: arkitekto bat (bulego-burua), udal zaindari bat eta bi administrari ofizial.

Horrez gainera, Udalak kontratu bat gauzatu du hirigintzaren alorreko (ingeniaritza) kanpoko aholkularitza-enpresa batekin, eta horiek 2015ean 24.540 euroko gastua sortu dute gutzira.

2015ean indarrean dagoen Udalaren Hirigintza Plana 2015eko otsailaren 13ko 30. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu da behin betiko.

Udalak ez du hirigintzako hitzarmenen erregistrorik, ezta artxibategirik ere. Hirigintzako sailetik, 2011ko martxoaren 17an, proposamen bat aurkeztu zen: "Hirigintzako hitzarmenen erregistroa eta artxibategia antolatzeko eta funtzionatzeko arauak", baina haren edukia oraindik ez da onartu.

Udalak ez du kudeatzen bere lurzoru-ondarea erakundearen gainerako ondasunetatik bereizita. Horri dagokionez, inbentarioan ez da jasotzen ondare hori loturaduna eta bereizia izatea, eta era berean, ez da sortu erregistroa.

Hona gure gomendioak:

- *Hirigintzako hitzarmenak erregistratzea eta artxibatzea, indarrean den legediak eskatzen duen dokumentazioarekin.*

- *Udalaren lurzoru-ondarearen inbentarioa eta erregistroa sortzea, kontuan izanda gainerako ondasunetatik bereizita kudeatu behar dela, indarrean dagoen legedian jasotako helburuei lotuta dagoelako.*

Txosten hau eman da araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren, Jesús Muruzabal Lerga auditore jaunak proposatuta, bera izan baita lan honen arduraduna.

Iruñean, 2016ko abenduaren 13an

Lehendakaria, Asunción Olaechea Estanga